

GERNIKA-LUMO

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

ikurrak

- | | | | | | |
|--|------------------|--|------------------------|--|--------|
| | Abiapuntua | | Galurra | | Eliza |
| | Garraio publikoa | | Ikuspegia | | Ermita |
| | Turismo bulegoa | | Iturria | | Torrea |
| | Taberna | | Erromatarren kokalekua | | koba |
| | Natura2000sarea | | Errota | | Errota |

San Martin
AMILLAGA

Maiaga
(403 m)

Elorrieta
Ganaga
(319 m)

Baldatika
Goikoerrotza
Berrizgana
(266 m)

Axbiribil
(354 m)

ARTADI
KANTAUARIARRA

Kosnoaga
Aixerrota
(273 m)

Ordorika

San Pedro
LUMO

Armotxerri

Urberuaga

San Kristobal
Urdaibai

FORUA

Santanape

GERNIKAKO
ITSASADARRA

GOI ESTUARIOA

Urbietta

OKA

Errenteri

BIOG

1937ko apirilaren 26an Gernika-Lumo bonbardatu zutenean, inguruko bide, baso eta mendiak bonbetatik alde egin nahi zuen jendez bete ziren.

Horieta bide batzuetatik ibiliko gara gauro txangoan.

Udaletxeko plazatik abiatu eta Josefinen egoitza aurretik igaro ostean Lumoko bide zaharra hartuko dugu. Ba al zenekien gerran Josefinen egoitzan ospitalea egon zela?

Harrizko galtzada ederrak lotzen du Gernika-Lumo San Pedro auzoarekin. Gernikako ikuspegi zoragarria dago Lumotik. Nolako irudi tristea auzo honetako biztanleek bonbardaketa egunean ikusi zutena. Goi goitik ikusiko zuten Gernika nola zen suntsitua.

Lumotik bide ederra dago Amillagara joateko. Ordorika baserri albotik igarotzen da eta San Martin ermita albora heltzen da.

Behin Amillagan Elorrietara igotzen den bidea hartuko dugu, Lumo eta Errigoiti arteko errepidera heltzeko.

Lumoko bidea atzean utzi eta Goikoerrotara jaisten dan bidea hartuko dugu jarraian.

Apurka apurka Baldatika errekaen arrora jaitsiko gara eta ur behera egingo dugu errekaen soinu atsegin eta ibar basoaren edertasunaz gozatzeko dugun bitartean, Goikoerrotara heldu arte.

Behin errota parean, pista zabaldu egiten da eta Amotxerrira jaisteko aukera eskainiko digu.

Arnotxerrira heldu aurretik Baldatika erreka ertzera jaitsi eta zeharkatu egingo dugu.



Bide ederra da Urberuagaraino joateko erabiliko duguna, Landazabala eta baserri ederrak dira auzoan nagusi. Garai batean ur beroa ateratzen zen lur azpitik zonalde honetan. Hori dela eta Urberuaga izena.

Urberuagatik Atxondora joan eta harrobi aurreko bidetik Foruraino helduko gara. Foruko erromatarren herririka albotik igaro eta itsasadarraren parean doan bidera jaitsiko gara, handik Gernika-Lumora bueltatzeko.

FITXA TEKNIKOAK

12,5
km
LUZERA

300
m
MALDA



TURISMOA GERRA GARAIAN

1938an, oraindik gerra bukatu gabe zegoenean, Espainiako Turismo Zerbitzu Nazionaletik gerra turismoa egiteko ekimena abian jarri zuten.

Gerrako borroka eta garaipen lekuak goraiatu eta ezagutzera eman nahi zituzten eta horrela, Bizkaian, besteak beste, Artxanda, Larrabetzu, Burdin Hesia eta Gernika-Lumo bisitatzen zituzten "RUTA Nº1 EL NORTE" izenez ezagutzen zen ibilbide turistikoan.

Autobusez bidaiatzen zuten eta turista atzerritar dirudun ugari erakarri zituen produktu turistiko honek.

Urte eta erdiz egon zen ekimena martxan eta esku-orri turistikoa ere diseinatu zuten garaipen lekuak eta garaileak biltzen zituen.

